



:—: || V Urtea || 1923'ko Agofa || 57 Zenbakia || :—:

Aingeru ta santuei otoitz egiteaz

*Omnes sancti Angeli et Archangeli... omnes
sancti et sanctae Dei... intercedite pro nobis.
(Letaniae Sanctorum).*

*Aingeru ta goiaingeru deun guziak... Jaungoiko-
aren deun guziak gure bitarteko izan zaitezte.*



GIAZKO Elizaren aurfak eztegu nastekatzen Jaungoi-
koari egiten diogun agufa ta aingeruei edo santuei
egiten dioguna.

Txoil aundi, agurgafi ta goragafitzat daukagu ze-
ruko edozein; Jaungoikoaren aur zintzo, maite, aren
doai bareziak ornitutakoa dalako aietako edozein. Ar-
gati aundietsitzen eta goretsitzen ditugu oiek, ba-
ño Jaungoikoari guzien gañetikako itzala diogu ta beroien Jaun aberastzale-
tako artzen degu ta argatik Jaungoikoa bakarik jauretsitzen (adoratzen) de-
gu aldeoroko elizaren aurfak. Baño aingeru ta deun edo santu guziak Jauna-
ren ondoan gure laguntzale aundiak izan ditezke la siñisten degu ta argatik
aipatzen ditugu beren izenak eta otoitz egifen diegu geren bear-orduetan.

Aurkalari edo Protestanteak begi gaiztoz dakuste au. Baño aien esanak
etzaitzaten bidè onetik atera erakutsi nai dizut gaur:

Zilegi da aingeru ta santuak gores- tutzea ta oien laguntza eskatzea. :-:

Abraham'ek (1) iru aingeru agertu zitzaizkionean, Balaham'ek aingerua tente ikusi zuanean eta berdin Josuek, luferano auzpezturik agur egin zioten. Jakob'ek berekin bofokatu zan aingeruari bere bedeinkazioa edo onespena eskatu zion eta onek bedeinkatzeraño etzion utzi (Genesis XXXII.) Tobias aita-semeak Erafael aingerua nor zan ikasteen lufari beren aurpegiak itsatsirik agur egin zioten. (Tob. XII). Auen befia ematen diguten liburu santuak ontzat ematen dute auek guziak egiña; ta beraz inork ez dezake esan eztela zilegi aingeruak goretsitzea, agurtzea ta oien bedeinkazioa eskatzea.

Efegeen I liburu santuan esanik zeukan Jaunak: goretsiko dut, goretsiko nauen edozein. » Argatik Eliseo'k seme ila berpiztu zion andreak santuaren afean auzpezturik agur egin zion eta santutako ta afigari-giletako artu zuan. Geroago Jesus'ek esango du bere jafaitzaleaz: neri norpaitek laguntzen ba-dit, nere Aitak goretsiko du alakoa. (Joan. XII 26). Eta Apokalipsis liburuan Piladelpia'ko Obispoari esaten dio Jaunak: Eta nik ekafi-azi eta zure on-afean zu agurtzera beartuko ditut; eta ezagutuko dute maife izan zaitudala. » (XXII-8.) Beraz zilegi da santuak ere Elizak egiten duan bezala agurtzea.


Eta ainguruak Juan ebanjelariari ta S. Pablo'k Listri'akoari eragotzi ba-zioten agur egitea aien afean auzpezturik; lenengoan Apostoluaren eskubidea ain aundia zalako egiñ zion eta bigafenean Jaungoikotzat artu nai zutelako Listri'afak.

Zilegi al da aien laguntza eskatzea ere? Bai inolaz ere. Artara eragin zien Jaungoiko berak Job'en adiskide biotz gogofai. (Job. XLII). Abraham'ek eskatzen zion Pentapolis'ko efitar galduen alde ta Jaunak gogoz erantzuten zion; Moises'ek bere efi pekatariaren alde ta barkatu egiten zion edo garai-pena ematen zion ura besoak jasorik otoitzean zegoan arte; orain entzun bada Agustin degnari «Apostoluak eta martire edo ziñopak oraindik aragiz jantziak otoitz egin ba'dezakete besteaz, beren buruz oraindik arduraz ibili bear dutenean: zenbatez geiago koroaiak, garaipenak eta gaintzeak irabazi dituen ondoren? Moises'ek bakarik seireun mila gudari edo soldaduei Jaungoikoagandik barkozioa irixten diote... eta Kristo'rekin bizitzen asi diran ezkerogutxiago ote dezakete? Pablo Apostoluak dio befeun eta irurogei ta amaseien bizia iritxi zuala; eta gorputz gabea izaten asi ezkerog, ixilduko ote da bere ebanjelioaz lur guzian siñistu dutenai lagundu gabe?»

Ondasungaria al da deunai deitzea ta otoitz egitea?

Bai ziñez. Ala egiztu zuan Trento'n eliz-oroko Batzafeak: on eta ondasungari da Jaungoikoaren grazia ofen Seme ta gure Jaun, Erosle ta Zeruratzale Jesukristo'ren bidez irixteko *deun edo santuei deitzea ta aien bi-tartez eskatzea*.

Arixtian esan degunaren ondoren ori ukatzekoz beafko litzeke esan edo guk deunen edo santuen otoitzen bearik ez degula, alako premi, bear edo estutasunik izaten ez degulako; edo aien bitartez eskatzen ibiltzea ezerta-



Jesus itxasoa baretzen

rako ez dan laguntza eskatzea dala, gerez naikoa geraldako Jaungoikoari bear deguna eskatzeko. Baño lenengoa ero batek bestek esan ez dezakena da ta bigafena aro purukatu latek bakarik esan dezakena. On zaigu ba, santuei deitzea ta otoitz egitea.

Ta ondasungaria dala guretzat beren otoitza, aditzera ematen digu Jaungoiko ber-berak, Zakarias Profetaren liburuan erakutsiz, Israel'go efiaz otoizka zegoala bere aingeru zaitzaia (Zach. I-12); ta Makabeoen liburu santuan Jeremias orduko ila erakutsiz eta artaz esanez: ona anaien eta efia- ren maitatzaia; au da efia- ren onez asko eskatzen duana. (Mach. XV-14.)

Aingeruen eta deunen otoitz indartsuen bitartez iritxia maiz dakusgu geren begiz ta gure efia- k ezin du zalantzik izan oren gauza agiriaz.

Beaitezkoa al da Aingeru ta zeruko deun edo santuei otoitz egitea?

Beaitezkoa, ta zerura joateko ezin-bestezkoa edo pekatu aundirik gabe utzi ez ditekene *ezta*.

B. K. Ikastiak dio: *G. Aingeruai ta zeruko Doneai ere otoitz egin bear al zaie?*

E. Bai jauna, Aingeruai ta zeruko Doneai ere, gure bitartekoak dira-ta, otoitz egin bear zaie.

Itz auetan esan nai da gaurko sail ontan erakutsi dizuguna. Lufeko eliza ez dagoala zerukoarekin ikustekorik gabe. Baizik lufeko elizaren umeak bear, premi ta estutasunak ditugunean bear ditugula gure begiak zerukotara jaso, aiei deitu, aiei eskatu bear diegula beren laguntza, Jaungoikoa gandik irixteko aren grazia, aren ontarteak. Zerukoak ba-dutela esku- rik asko Jaungoikoagandik bear deguna irixteko, baita ere biotzik asko gutaz efukitzeko.

Zeruko guzien laguntza bear degu eskatu Elizak bere eskarietan beza- la; baño gure ardura ta kontua Jaunak emanik, bere babesean gakartzan Aingeru zaitzaleari batez ere. Au da gure Aurtzaia, au gure gidaria, au gu- re adiskide maitatia, au gure laguntzaia aundia; izan bedi gure lagun mai- teena.

Intza'r Damaso An. O. M. Cap.



ITSAS ERTZEAN

Ilunabara...
Eguzkia iya ilean
itsasoai musuka...
Aitzak itsas-ertzean
aztindutzen oñuka
itsas zakaña...

—
Txistuka eldu dira
añai biziz beteta
itsas-ontziak...
Ori poza! Begira
kayan dantzan ume ta
gazte guziak.

—
Kai bertatik orduan
lufin-ontzi (1) aña
ostez (2) beteta
txistuka, ilun zijuan,
amets beltz bat lakoa,
Ameriketa.

—
Negañez kai-aldera
zuzendurik begiak
ontzi-gañean...
Baña, ontzia auñera
...Deadarka guziak
itsas-ertzean.

—
Ara, ontzi aña
sañtu da su ta gañez
itxas nasian...
...Etxera andre gaxoa
kai-aldetik, negañez
bide guzian.

—
Bestezuk bitartean
kayan ta ontzian

dantzan t'ojuka...
...Eguzkia iya ilean
gofi-gofi itsasoai
azken-musuka...

.....
.....
Ori bai bizitzaren
antza samña...!
Bizitzari musuka
eriotz miña...

—
Biotzaren kayean
atsegin-ontzitxo
sañtzen danean,
itxaropen aña
kayatik, aratsean
igesi doa...

—
Zalekeri ta ametsez
beterik doa,
urñtira ta gabez...
Ontzi gaxoa...!!!

—
Biotzaren kayean
gero ixkanbiña
gogoa irñen danean
atsegin biña....

—
Ta bitartean beñiz,
egi zoñotza!
bizitzari musuka
ai! eriotza...



(1) Lufin-ontzia=bukia, baporía. (2) ostez=jendeoz.

Emakumea ta Irakurgaia

Emakumue Azafi (Ausarta) Bazkunakoai eskeñia.



Gaiak: 1. Mundua beritzen ari da.—2. Indar berriak.—3. Andreak biotz-bidea ezagutzen dute.—4. Gutxian asko.—5. Efonka bati erantzunera.—6. Okefeko aldera.—7. Maria'ren Alabak bufukan.—8. *Vis unita*.—9. Salgai bikaña.—10. «Irakurgai onen ordezkioak.»—11. Lanbide jatorra.—12. Zera.—13. Alorta edo frutuaz zuaiza ezagutu.—14. Uste biziko animak.—15. Irakurgaien aldeko bizi eskeintza.

7.—Maria'ren alabak bufukan.

Brest eta beste leku askotan Maria'ren alabai ere dei egin zaie *Ave Maria*'ren Alkartasunean (irakurgai onen alde otoitz edo orazio egiteko alkartasuna da) saftuaziaz, Lan onen zaitzaile egiñaz. 1911'go Irakurgai Onen Batzafean Galli abadeak auxe zion: «Geienetan gazte auek lan egitea besterik ez dute bilatzen ta batzutan ez apaiza, ez beste inor sarri ez diteken lekuetan saftzea irixten dute. Nik otoitz ta lan egiten duten 125 baditut Brest'en.»

Auxe bera egiten da kristau-eskoletako nexken artean. Irakurgai onen alde egunero otoitz egitera ta noizean bein oyentzat diru pixken bat ematera oitu egiten dira.

Eta zenbat bide antzetsu lana ondo atera dedin. Gaztetxo batek egunero papera egunero irakurri zezaiola eskatzen zion aide edo pariente bati erantzun zion: Pozik irakurriko dizut baño nere papera; zurea ezin irakurri det eta au eztet egin nai.

Aidea ontara jafi zan. Ta ain eder izan zitzaiolako elizaren etsaia zan papera utzi ta katolikoren arpidedun edo suskrito egin zan. Elizaren aldeko lanetarako beaf-bada Prantzi'ko uririk txafena izango da. Eskeñak bi Alkartasunetako andreaki ta beste batzuei ondoren afigafiak ekafi zituan irakurgai onen aldeko lanak uri onetan. Ona befi-bialtzaile baten itzak: «Andreak etxeetara ikustaldiak egitea saftu dute. Ikustaldi asko egin dituzte bai urian (ziudadean) bai inguruetan 15 mila arpide edo suskizio egin arte.»

8.—Via unita.

Andrearen alegiñak apaizarekin batutzen diran lekuetan, ondorenak ots aundikoak izaten dira.

Saint Sigolène'n Martel apaiz jaunak, andreak bultzatu ta lagundu-ta irakurgai Onen aldeko lanari ekin zion ta 4.000 doi-doi zituan efi artan Pa

ris'ko *La Crois'i* 147 arpide edo suskizio egin zizkioten. Bitartean nola antolatu ondo paperak etxeetara eramateko lana? Ontarako emakume talde bat bildu zan ta guztia arigafiro irten (atera) zan. Geiago oraindik. Erialde artako *Croix de l' Indre* deitzen zan papera. angu andreen lanai eskeñak, ilabete gutxitan bi aldiz geiago saltzea iritxi zan; lenago 3.200 saltzen ziran ta, lana egin ondoan, 6.300 (1).

Anjou'ko Segre'n 1912'an irakurgai onen aldeko langile zar bat animen artzaitzat juaten ikusi zuten. Baño pañoki befi onetan traba askotxo irten zitzaizkion bidera. Azkenean andre ta neskatak lagunduko ziotela esaten zion adiskide baten esanai amor eman zien.

Laguntzale guziok 18 ziran. Sendi edo pamilien izen-beña edo lista egin zan; amafen bat egunez aldizkingiak (periodikuak) bialdu zitzaizkien. Azkenean zaitzaleak (zeladorak) binaka etxetara joan ziran ea artu nai zituzten jakiteko ta 180 arpide edo suskizio egin zituzten ta auek gero ta geiago egin ziran.

9.—Salgai bikaña.

Nola nai dezu nik irakurgai onak ez maite izatea? zion Jura'aldeko emakume on-on batek. Oiek eman didate bere alde egin dedana baño geiago bada gauza bikaña eman didate.

Arazoa eñaza da. Juan Pedro deitzen zan batek, bere auzokoak, zortzi urtez, bere alaba Margarita emaztetzat eman zezaiola zion. Baño biraolaria ta ez Jaungoikoa'gan ta ez deabruagan, berak zionez, siñisten etzuelako, etzion alaba ematen.

Afatsalde batean gogoratu zitzaion Juan Pedro'ren baratzera bere aldizkingi edo periodiko katolikoa botatzea. Urangoan etzegoan an, nonbait nork edo nork bildu zuan. Au bera ogei bat egunez egin zuan ta, ara, egun batean gaztea juaten zaio onako itz auek esanaz: Eztakit nork izan duan nere baratzera egunero zure aldizkingia (periodikua) bezel-bezelako bat botatzeko gogo. Siñistu zadazu, atsegin izan zait ta arpidedun (suskritore) egin nai nuke, ola bidariz edo koreoz artuko nuke.

Ilabete gutxiren baruan Juan Pedro aldatua zegoan. Lenago elizara maiz ez juan ta apaizari beaf zan begiramentua ez izan afen, orain lotsa gordezzen zion ta aitorpen edo konfesioaz ta elizakoetaz itzalez itz egiten zuan.

Onegatik ezkontza egin zan ta amagiafeba ona bere aldizkingi edo periodikoaz ondo itz egiteaz ezin ziteken gelditu.

Auxe jalki edo kontatu zuan Devuns andreñoak Irakurgai Onen 1911'ko Batzafean (2).

Cultrera-Arbelaitz O. M. Cap.

(1) *Croisade* 1911-XII, 466'g. ofialdea.

(2) Ibid.







TOZ JAUNA ORI



Elduayen A'k ereskidetua.






Josu kenduta, Jauna gaberik
Nere gogua gaizki dago:
Atoz, Jaun ori, bestela atsegez
Ezin bizita il nayago.

Niganontz, Josu, nerekin bertan
Idetutzero atoz, aŕen:
Zurekin beti bat izan nadin
Beti-betiko, onelaxen.

Errenderi'tar E. A.

Ira Agur Marien bitartez soldadu bat onbidera itzulia

Amari eskutitza (karta)



ERE biotzeko ama: Joan dan igandean Pazkozkoa egin nuan. Aŕiturik geldituko zera; bost urte bai baitira enuala egiten. Oroitzen naiz nola esan ziñidan onera-koan: «Orain siñismen gabea bazera, ¿zer egiñen ote duzu soldaduen artean?»

Baño, begira. Nere gela ondoan lo egiten du apezgai edo seminarista batek. Gizon prestua da, oso ona; eztu biraurik botatzen, eŕetiro txarik egiten, ezta ere ebasten edo ostutzen. Goizeko eta aŕatseko otoitzak belauniko egiten ditu egunero.

Orain dala gutxi, jolasean asi giñan biok elkarakin.

Bera asi zan: «Ongi azia eta guraso zinzoen semea zera la deritzait; eta beraz Pazkoazkoa egin naiko duzu. Nik lagunduko dizut.—Ezta iñola ere.—Badakit nik eztala ori, jostatzea bezin atsegingafia, baño soldadu zintzoak eztu iñoren bildur edo lotsarik izan beaŕ.—Baño besteak ezpaitira elizara urbiltzen ere...—¿Egin al duzu lendabiziko komunioa?—Bai, jauna, ongi ala ere.—Egun ortan, ¿ez alziñion Jaungoikoari deus agindu? Etziñula geiago biotzean artuko, eta judu bat bezela biziko ziñala esan al ziñion? Ez noski. ¿Eta itz eman, eta atzera itzuli?»

Itz-egin ta itz-egin, gazte bikañ eta argi afeek garaitu ninduan. Gero; aruntzaxago dagon Ama-Birjiñaren eliztxo batera eraman nindun, eta an, *iru Agur Mari* elkafeekin esan giñizkion zeruko Amari. Gero egondu zan nitaz otoitz egiten bost bat minuto. Bitarte artan, nere barunen gertatutakoa, neronek ere eztakit: gelditu nintzan itzal-itzal; nere arpegiak ilargiaren antza artu zuan seurik, eta negar malko bat edo beste ixuri nun noski. Itzuli zan laguna eskuetan afosario batekin, eta biok batean eskeñi giñion Andre Maria'ri otoitz eder ura. Eztut ura bezelako otoitz biotzezkorik, beñere egin. Nere biotza ari zan poztutzen; baño lagunarena poztuago zegon noski.

Efirakoan, eraman nindun «Gudari batzartoki» deritzan gelanausi eder batera. Ango lagun guziak, gudari edo soldaduak dira. Bereala etofri zitzaidan apez bat. ¡Ura apez agurgafia eta prestua! Estutu zidan bere eskuarekin nerea, eta gero, zigafo bat eman zidan. Ondoren dio: «Gazte maitegafia, ongi etofia, egunero emen ekusten ba-zaitut, nere pozik aundiena izango da.» Nik esan nion enitzala ni aratako diña, ain gaixtoa nintzalako. Orduan berekin artu ta esan zidan: «Atoz, egiñen zaitut nik bereala Jaungoikoaren eta bere Amaren adixkide.»

Asi nintzayon nere bizi guzia agertzen, eta gizon afeek, nik nere fusila baño garbigo utzi ninduan. ¡Ura nere poza eta atsegiña! Biok atera giñan pozaz lertzen. Afosario txiki bat eman zidan. Nik agintzen dizut, aste egunean ezpada, igandetan beñepin eztutela utziko.

Gero, nere lenagoko apezgai adixkide afeek eraman ninduan elizara, eta an biok Jauna artu giñun. Nere lekuan baziñande, amatxo zer dan egiazko atsegiña ikasiko ziñuke.

Lagun txafak iri-paia egin didate noizpait, adixkide ofeekin nabilelako; baño neri deus etzait. Bein asi ziran gañera, Jaunaren eta bere Amaren aurka; ordun bai, aguro ixildurazi nituan. Ondu naizenetik, izugafi bizkoia egin naiz.


Esaiozu eriko apezari, onbidea artu dutela.


Zuk, beñiz, besarka estu-estu bat, zure semearengandik, artzatzu:

K. B.

Oaia: karta au da 1901'ko Martxo'ko 20.^a, Toul deritzan Prantzi'ko efitik idatzia.

A. I. M. O. M. CAP.





ZIGA (Baztan)

Padua'ko Antonio Deunaz

ZAITUKO DITU



ufak luf onetako izakirik zorigaiztoenetakoak dira. Berez ezertxotarako gauza ez dira; guztirako besteen laguntza bear dute. Askotan, gaitzez beterik nola nai iltzeko afiskuan arkitzen dira. Aurf gaxo oiek ama on bat, zaitzale arduratsu bat ezpadute, gofiak ikusi beaferkoak dira; eta askotan, ama on bat, zaitzale arduratsu bat

izanda ere, amak eta aurtzaiak ezin galerazi ditzaketen zenbat zorigaitz eta galbide ez dituzte izaten?

Auren soñ edo gorputza afiski aundiz inguraturik badago beren gogo edo arima askoz ere galbide aundiago ta ugariagoz estuturik dago: bada aurtzaroko oiturak txit iraunkorak dira eta gizonaren bizieran asko deza-kete. Aurfak bada beren gorputzarekiko eta arimarekiko beaferetan zaitzale berezi baten premi aundia dute.

Padua'ko Antonio Deunak auren ardura izango ote du?—Bai orixe.—

Antonio Deunak Jaungoikoagandik artu duan eskubide ta almen aundia beragana dijoatzen beaftsui laguntzeko du; eta aurfak baño beartsuago nor ote?

Beaftsuenak lagundua izateko eskubiderik aundiena izanik gure Deun efukitsu onek aurf efukañi oiek laguntza gabe utzi ote ditzake?—Ez noski.—

Baño Padua'ko Antonio Deunak aurfari laguntzeko zio edo afazoi berezirik ez ote du?—Bai noski.

Jesukristo gure Jaunak aurfekiko beste inorekiko baño maitetasun aundiagoa azaldu zuan eta auren alde gauza afigafiak esan zituan. Era berean Jesukristoren jafaille zintzo Padua'ko Antonio Deunak aurfekiko maitetasun berezia agertu zuan.

Esan au, auren alde egin zituan alatz edo mirari ugariak egiztatzen dute.

Luf onetan bizi zala gutxienaz lau aurf il piztu zituan eta il ondoren askoz ere geiago.

«Bein batean Komakio uriko gizon bat, bere semetxo bat atzetik zuala egin beař batera zijoan. Bidea txarfa zan-da mutikoa, ifist eginda, aita oartu gabe, osin batera erori zan. Semeak jafaitzen ziolakoan aita aurfara zijoan. Aguroago ibiltzeko askotan esan da semeak erantzuten etziola ikusirik atzera begiratu zuan eta inon ere etzan agiri. Zijoan bidetik itzuli zan eta len igaro zuan osiñera iritxi zanean uretan itorik arkitu zuan. Legoferatuta eortzitzeko (*enteratzeko*) beař ziran gertaketak egin da gero, aita ark txit

naigabeturik eta negaiez, piztutzen bazuan bere *gorpuzki* deunak zeuden elizara berekin eramanda Meza nagusi bat emaneraziko zuala aginduaz Antonio Deunari bere semetxoaren aldeztotz egin zion. Bereala mutiko itoa aia *mugitzen* asi zan eta pixkaka-pixkaka bizitzara itzulirik osasunez jeiki zan.» (L. M. A.)

Orain ere, antoni'tar aldizkingietan ikusten degunez, Antoni Deunak aurari egiten dizkien mesedeak efuz dira. *Gaizki zegoan nere «aurari osasuna eman diolako, Antonio Deunari agindu nion da.....»* noiznai irakurtzen degu.

Gañera bein batean Antonio Deunak emakume efugabe baten izena garbitzeko bulařetako aurtxo bati itz-eginerazi zion. Antonio Deunaren eriotzaren befi lenengo zabaldu zutenak aurak izan ziran.

Baño batez ere Jesus Aua Antonio Deunaren besoetan nola dagoan ez aldeztute ikusten?—Antonio Deunak bada Jaungoiko Aur' ofi dion maitetasun bizi-biziagatik bere babesean jartzen diran aurak ezin ditzake ařetaz zaitu gabe utzi.

Lefo au irakurtzen ari zeraten gurasuok, zuen seme-alabatxoak Paduko Antonio Deunaren ardurapean ipiñi itzatzute; beren eritasun eta zorigaitzetan, berez eziñ duteta, beren alde Antonio Deunari egin zaioztute; eta Antonio Deunak oberen zaiena emango die; eta bere ardurapean jafi zaizkion aur' oiek beren bizitza guztian ařetarik aundienaz zaituko ditu.

O'tar Ak. O. M. Cap.

Alahabad'eko Misioa (Asia)

Robertsganj'eko Inditařen arıtean



Aia Jaun maitea:

MENTXE ijituen gisa bizi naiz, ta oraindaño osasun onez. Baño dagoniña edo abuztu kiskaltzañea urbiltzen ari dalako bildur' naiz orduko ezpadegu etxe bat idukitzen, (orain eztaukagu lau ziri ta oyal batekin egindako txabola besterik) il-otoitz edo orazioak nere animarentzat egin beař izango dituzutela.

Lau itz bialtzen dizkitzut, alik ondoen, nere bizileku befi txit ufutira, uri edo ziudadeetatik txit ufuti, baso usu-latx-indařtsu baten

erdian ta, anima kendu ezkerok, baso ofen doai guziak dituan jendeen erdian dagon nere bizileku befira juateko egin dedan ibilaldiaren befi emateko.

Mirzapore efialdean dagon Robertsganj'eko efitafen artean, oraindik misiolari bat ere izan ez dan leku ontan nago.

Aitoftzen det amabi urte baño geiago erakusten ari izan naizen Lucknow'eko nere eskola maitea onera etofitzeko uzteak miñ eman zidala. Baño Jaunaren laguntzan bakafik ustea ipiñirik, goldeari eutsi diot, luñ landugabe, arantza ta sasz bete, baño ez itxaropen edo esperantzik gabeko au goldatzeko.

Burni-bidez Mirzapore'ko gelditoki edo estazioraño jua nintzan. Emen bukatzen dira Europa'ko auferapenak eta India'taen bideak ibiltzea on da. *Ekkha* deitzen duten gurditxo bat artu ta nere tresnak bere gañean ipiñi nituan, ni befiz txifinguts edo belozipedoaren gañera igo ta bide txaf batetik laixteari ekin nion.

Ibilaldia luze-neketsua izan zan, baño alai ta atsegiña; gelditu gabe, bata bestearen ondotik, ikusten ziran alderdi izugari edefengatik. Goiz-goizean erdi ilunpetan abiatu nintzan ta eguzkia agertu zanean urietatik miña asko ufundu nintzan. Ordea lufalde ura bizidunez bete dagola dirudi: emen ikusten da oreintalde bat, an basufdeak, ufutiago munduko nagusik diruditen indioño pila neufigabea, arago antzara sail aundiak, gero iñoiz ere uts egiten ez duten tximuak arbola batetik bestera jauzika (saltoka) ta alorta edo fruturik gozoenak ostutzen. Noizean bein Romagna'n abeletxe edo aberategiak deituko ginduzken emen gizon etxeak deitzen dituzten txabolak agertzen dira.

Nere begien aurretik oinpoaren (pedalaren) jira bakoitzean igarotzen zana ain edera izan afen nekea ta auleria sumatzen (sentitzen) asi nintzan.

Baño non gelditu ta zerbait topatu leku auetan? Nere erlojuan amabiak ziran, eguzkiak bere indi-inda guziak suzko gezi edo fletxak botatzen zizkidan... ta nere txifinguts edo belozipedotik jetxi ta arbol urtetsu baten azpian gelditu beafean arkitu nintzan.

Nere egari aundia kentzeko nere ingurura begiratu nuan ta bidetik urbil pezoine arte bat ikusi nuan baño ai ene! ur geldi ta loa zan.

Egariak ordea berea eskatzen zuen ta biziro ala ere; orduan gogoratu zitzaidan Ebanjelioko esan au «si mortiferum quid biberint non eis nocebit» ta txifingutsaren (belozipeduaren) txilintxa basotzat artu-ta ase arte edan nuan.

Itxuraz pixkoftu nintzen.

Befiz txifingutsera igo ta bi orduterdiz bideari ekin nion.

75 kilometro ibili ondoan Robertsganj'era iritxi nintzan.

Kofeoaren bitartez (alka aditzeko ala deitu beafko...) andik miña bateko bidean zegoan Amora efitxoan nere lagunak bere txabolatxoa jafi zuela jakin nuen.

Mango zaf ta aundia baten azpian nere neketako lagun Granaglione'ar Migel'ek egin zuan txabola opatua nuan. Ba ziran egun batzuk gaixoa ondo etzegoala ta zeruko aingerua bezela artu ninduan ta nere neke izugaria oarturik aparria prestatzen egiñalaz asi zan. ¡Ta zer aparria! afoz plater bat tilistakin ta kalabaza plater bat. Auxa da nere aparri, bazkari, ta gosaria. Auxa da indi-janaria jai egunekukoa ta aragi uzteko egunekoa, garizumakoa ta iñauterietakoa.

Gero, gaua etofi-ta, neka-neka egiñik nengoalako, goiz etzan nai nuen baño non? txabolan oe bat besterik etzan ta ura txikitxoa.

Nere lagun argi ta antzetsuak ordea kezka au kendu zidan; *ekarpai* bat au da India'ko lau kañabera ta bertatik zintzilika baso auetako belar batekin egin-dako sare bat.

Oe ontan bela etzan nintzan, baño naiz ta, labufa zalako, burua ta oñak aldizka zintzilik iduki, lasa-lasa atsedeen deskantsua artu nuen.

KAPUTXINOEN MISIOAK



APUTXINOAK joan zan 1922 gaŕen urtean zeuzkan misiotoki eta misiolariak eta oiek egindako lanak, beren azkeneko zen batzak diotaz auek dira:

1. Misio-toki ta misiolariak

1'go. «S. C. de Propaganda Fide'ren mendekoak:

Europa'n:	3	misio-toki	67	misiolari.
Asia'n:	12	»	238	»
Aprika'n:	6	»	108	»
Amerika'n:	5	»	118	»
Ozeania'n:	3	»	63	»
GUZTIAK:	29	»	594	»

2'en. Beste misio-tokiak:

Amabost misio-toki (geienak Amerikan) eta lareun-da larogeitaameika (491) misiolari.

Bi sailak batuta; misiotokiak larogeita lau (44) eta misiolariak mila ta larogei ta bost (1.085) dira. Oietatik gutxienaz eun da ogeita amaf bat Euskalefiko semeak dira.

Misiolari kaputxino oiek laguntzat dauzkate:

11	apaiz europafak
118	apaiz bertako semeak
123	<i>prale</i> beste <i>Ordenatakoak</i>
1000	<i>monja</i> (313 bertako alabak)
344	<i>dotriña</i> -erakusle.

2. Misio-lanak

Kaputxinoak beren misio tokietan miloi-bat eta geiago katolikori begiratu beaf diete eta eun miloi (100.000.000) baño geiago egiazko elizara ekartzea beren ardurapean daukate.

Azkeneko urtean (1922) egin dituzten lanak:

60.000 itzaldi (*sermoi*)—65.103 *bataio*.—38.120 Sendotza (konfirmazio)—3.825.726 Jaunartze. —14.695 ezkontza *katoliko*.—321 ezkontza nastu.—8.189 azkenigurtzi (oleazio).—8.040 eortzitze (*entiero*).—6.363 bideoneratze (konbertsio).

Beren ardurapean dauzkate:

7 apaiztegi=148 apaiz-gai.—622 ikastetxe asteko (*eskola*)=16.685 mutiko eta 9.947 neskatx.—112 ikastetxe (kolejio)=5.313 mutiko ta 9.448 neskatx.

20 Edertidi ta Langintz ikastetxe (1).—401 ikasle 3 egozki-etxe (*asilo*)=116 aurf.

115 umezurtz-etxe=3.787 mutiko eta 3.152 neskatx.

21 eritegi=1.377 eri.

95 sendagai-etxe eta 29 *denda* (*koperatiba*).

Lan moño edera da; baño misiolari adoretzu oiek askoz ere geiago egin nai lukete bañan biotz oneko kristauak beren otoitz eta eskupekoaz laguntzen ezpadiete eziñ.



PEKIN.—1922'g. urtean 86.000 giz-emakume bataiatu dira, il baño len bataiatu diran umeak zenbatu gabe. Azkeneko amaf urtetan urtero 80.000 bataio gutxi gora bera eman dira. Misiolariak artu duten laguntzarekin esan diteke datoen amar urtetan milioitik gora izango dirala gure sinismena artuko dutenak.

CHICAGO.—1926'g. urtean egingo da uri ontan 28'g. Eukaristi-batzaña. Oraindik iru urte falta dira ta ala ere asi dira izpafingi edo periodikuak ontaz itzegiten. Latefi-Elkartuak (Estados Unidos) 18.260.793 katoliko dituzte—22.545 apaiz—94 gotzai edo obispo—17 artzobispo—2 kardenal—katolikoen eskoletan 1.922.420 ikasle—17.062 eliz. Ango goterkietan (diócesis) Chikago'koa bigařena da 1.150.000 katolikoakin ta lenengoa New-York'ekoa 1.273.291 katolikoakin. Izpafingiak diotenez Bátzar ortara bilduko diranak 1.000.000'eraño elduko dira.

NEW-YORK.—Gaurko egunian gobernuaren eskoletan umiai etzaie Jaungoikoaz ezer erakusten. Miss Lilian Elliot'ek dionez bere ikastetxean eundik iñork eztaki Aita gurea ta oso gutxi dirala Jaungoikoaren aginduak dakietenak. Beste ikastetxe baten buru dan Miss Knox'ek dio badirala 500.000 da geiago erlijiorik ez duten aufak. Au ikusi ta, katolikoak prstestante ta judafakin batu dira gobernuari eskatzeko erakutsi dizayela umeai ikastetxetan beren gurasoen erlijioa.

LONDRES.—Arc'tar Juana donearen irudi bat dute protestantiak Winches-ter'ko eliz nagusi edo katedralian. Eliz au protestantiena da ta au da protestantiak beren elizan gure done edo santa bat agurtzen duten lenengo aldia.

VIENA.—«Reichspost» izpafingi katolikoaren 30'g. urtebetea izan dala ta, austriatar katolikoak batzaf aundi bat egin dute. Katolikoen arteko gizon ospatsuak bildu dira ta Piffel kardenalak itzaldi eder-edera egin du. Batzaña itxi zan egunian 100.000 bildu ziran alde guzietatik 600 ikufin edo banderakin. Izpafingi katoliko onek egun ortan Aita Santuagandik bedeinkazioa artu zuen.

Rio de Janeiro'n Batzar edera.

Orain ilabete batzuek Brasil'ek ere izan du bere Eukaristi-Batzaña. Au bukatu zan egunian, meza ondoan Arcoverde kardenalak, 24 gotzai ta 300 apaiz inguruan zituela eskeñi zion Jesus'en Biotzari Brasil. Batzar egunetan 13.000 aufak zuriz jantzita Jauna artu zuten. Prozesioak sei kilometroko bidea ibili zuan ta bertan joan ziran 500 apaiz, 30 gotzai Rio'ko kardenala ta Aita Santuaren Ordezkoa; kristauak 50.000 ba-ziran, ikusten zeudenak 300.000.